

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2021eko otsailaren 4ko 52. zenbakiko Alkatetzaren Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, Zigoitiko udalerriko kontzejuentzako diru-laguntzen deialdia egin zen, 2021erako inbertsioen gastuetarako, norgehiagoka-prozeduraren bidez

BDNS(Identif.): 547882

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/547882>).

Lehenengoa. Onuradunak

Zigoitiko udalerrian legez erata eta erregistratuta dauden kontzejuak joko dira onuraduntzat.

Bigarrena. Helburua

Diru-laguntzaren helburua da udalerriko kontzejuak sustatzen dituzten eta herritarren bizi-kalitatea hobetzen duten zerbitzu publikoak garatzeko asmoa duten obrak finantzatzea:

a) 1 TALDEA:

1. Obra berria, edateko uraren etxex etxeko hornidura-sarearen eta euri-uren eta ur zikinen saneamendu-sarearen azpiegiturak eguneratzeko eta konpontzeko.
2. Bide publikoak seinaleztatzeko obrak, bizikletentzako eta oinezkoentzako bideak mugatzea barne.
3. Jasangarritasun energetikora bideratutako obrak (isolamendua hobetzea, energia-iturri berriztagarriak ezartzea, hidraulikoa, eguzki-energia, eolikoa, biomasa...).
4. Hiri-lurzoruko eta nekazaritza-erabilerako bideetako kaleak berritzea eta konpontzea, obrak bizikletentzako erabilera ahalbidetzera bideratuta daudenean. Talde honen barruan ez dira diruz lagunduko kaleak eta bideak egokitzeko obrak, bizikleta-zirkulazioak eta trafiko motorizatuak erabilera partekatu edo mistoa izan dezaten.
5. Hiri-lurretik kanpoko auzo-bideak berritzea eta konpontzea, baldin eta obrak bizikletentzako edo oinezkoentzako erabilera ahalbidetzeko badira eta Zigoitiko herriguneak lotzeko balio duen ibilbide baten parte badira.

b) 2 TALDEA:

1. Kontzeju-etxea eta herriko bizilagunei zerbitzu publikoa ematen dieten beste eraikin batzuk birgaitzeko eta konpontzeko obra berria.
2. Hiri-lurzoruko kale publikoen zoladura, batzarraren jabetzako herriguneetarako sarbideak eta hilerrien sarbideak egitea, berritzea eta konpontzea.
3. Obra berria, argiteria publikoko, elektrizitateko eta telefoniako zerbitzuen lurpeko kanalizazioan eta horien instalazioetan eguneratze- eta konpontze-lanak egiteko.
4. Bidaiarien garraio publikoko zerbitzurako markesinak edo antzekoak eguneratzeko eta konpontzeko obra berria.

5. Kontzejuetako elementu bereziak birgaitzeko eta konpontzeko obrak, hala nola ermitak, iturriak, errota, garbitegiak, parroquia-elizak, administrazio-batzarraren jabetzakoak direnean, edo jabeak dagokion administrazio-batzarrari lagatzen dionean jabetza edo erabilera. Erabilera-lagapenak indarrean egon beharko du eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo hogeita bost urteetan.

c) 3. TALDEA:

1. Kirol-ekipamenduak egitea, birgaitzea edo konpontzea.
2. Haurren jolasguneetarako guneak egitea, birgaitzea edo konpontzea.
3. Berdeguneetarako eta hiri-lorategietarako espazio publikoak egitea, birgaitzea edo konpontzea.
4. Hilerria konpontzea eta/edo eraikitzea.

d) 4. TALDEA:

1. Nekazaritza-erabilerarako bideak birgaitzea edo konpontzea.

Ondorengo obrek ez dute finantzaziorik jasoko:

a) Indarrean dagoen legeriaren edo hirigintza-plangintzaren arabera, eraginpeko sustatzailerak edo jabeek finantzatu behar dituzten urbanizazio-obrak.

b) Udal-urbanizazioko ordenantzan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten urbanizazio-obrak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Diru-laguntza horiek emateko oinarri arautzaileak Zigoitiko kontzejuei diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza espezifikoan daude jasota. Ordenantza hori Udalbatza honek onartu zuen 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, eta ALHAOn (135. zk., 2020ko azaroaren 27koa) eta Udalaren iragarki-taulan argitaratu zen, 30 egunez jendaurrean ikusgai egon zedin. Tarte horretan ez da erreklamaziorik aurkeztu. Ondorioz, 2021eko otsailaren 3ko ALHAOn (13. zk.) argitaratu zen osorik.

Diru-laguntza horiek emateko prozedura norgehiagoka-erregimenean egingo da, aurkeztutako eskabideak erkatuz, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera lehentasun-hurrenkera ezartzeko, eta irizpide horiek aplikatuz baloraziorik handiena lortu dutenak esleituko dira, hurrengo puntuak ezarritako mugarekin.

Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Deialdi honen arabera aurkeztutako eskabideen ondorioz ematen diren laguntzen finantzaketa 943.734.000 aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio, 2021erako aurrekontuko "kontzejuetzako inbertsio-diru-laguntza" kontzeptuan.

Deitutako laguntzen gehieneko zenbatekoa 127.000 eurokoa da.

Salbuespen gisa, zenbateko gehigarri bat jasotzeko aukera aurreikusten da, eta diru-laguntzak emateko ez da beste deialdi bat egin beharko. Zenbateko hori 2020ko aurrekontuko 943.734.000 aurrekontu-aplikazioaren kreditua gehitzearen ondorioz erabilgarri dagoen aurrekontu-kredituaren zenbatekoa handitzera bideratuko da. Zenbateko gehigarria eraginkorra izan dadin, kreditua erabilgarri dagoela adierazi beharko da, eta dagokion aurrekontu-aldaketa onartu, diru-laguntza ematea ebatzi baino lehen.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak eta dokumentazioa aurkezteko gehieneko epea 2021eko maiatzaren 10ean amaituko da.

Eskabidearekin batera ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- Eskabide ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Diruz lagundu beharreko jardueraren justifikazio-memoria, gutxienez honako hauek adierazita: egin beharreko obraren deskribapen laburra, haren kokapen fisikoa eta egin beharreko lanen zerrenda.
- Obren aurrekontua.

Seigarrena. Justifikaziorako epea eta modua

Diru-laguntza jasotzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko zaizkio Udalari:

Onuradunak sinatutako eskabidea, Alkatetzari zuzendua, diru-laguntza ordaintzeko eskatuz, transferentzia zein kontu-zenbakiri egin behar zaion adieraziz.

Gastua justifikatzen duten jatorrizko fakturak edo horien fotokopia konpultsatuak edo kopia konpultsatuak.

Aurkeztutako fakturen ordainagiriak.

Beste erakunde batzuek emandako diru-laguntzen egiaztagiriak.

Justifikazio-agiriak 2021eko abenduaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira.

Ondategin, 2021eko otsailaren 5ean

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA